

IAZ IA-IA HIL NINTZEN



Iaz pizza asko jan nuen egun baten, eta txokolatezko pastel eta izozki asko. Orduan, tripa puztu egin zitzaidan, eta nik pentsatu nuen lehertu egingo nintzela. Eta hil.

Baina ez nuen etxekoen aurrean hil nahi, eta komunera joan nintzen hiltzera. Komunontzian eseri nintzen, eta eskubarrenak eta gorputz osoa izerditan neukan, eta, orduan, prof-pruf-plaf, lehertu egin nintzen.

Baina, gero ez nengoen hilik eta sukaldera itzuli nintzen, eta ez nuen gehiago jan, txokolate txuri apur bat besterik ez.

Ata atzo ere, suziriekin, hil egingo nintzela pentsatu nuen, baina ez nintzen hil, eta amatxoren lagun batek kalean negarrez topatu ninduen, eta bere etxera eramán ninduen, eta Sinbad Marinelaren bideoa jarri zidan, eta nik esan nion suziriak baino baino askoz gehiago gustatzen zitzaidala.

Eta gero amatxori deitu zion, eta tximistotsean (azkar-azkar) etorri zen, eta ai, oi, ei!, besoetan hartu ninduen, txikitan bezala, eta nik ustea utzi amatxok ere mila bihotz dituela ze taupa eta taupa egiten zioten. Eta esan zidan berari ere ez zaizkiola suziriak gustatzen.

Patxi Zubizarreta
Gaspar eta zuhaitzak
Aizkorri (egokitua)

1. Adierazi hurrengo esaldiak egia edo gezurra diren:

Gaspar iaz hiltzeko zorian egon zen.

Gasparrek iaz, egun batean, izugarrizko betekada izan zuen.

Gasparri tripako lehertu egin zitzaion.

Betekadaren ondorioz, komunera joan, eta kaka egin zuen Gasparrek.

Amak Gasparri Sinbad Marinelaren bideoa jarri zion.

Gasparren Amari suziriak baino gehiago gustatzen zaio Sinbad Marinelaren bidea.

2. Idatzi beste modu batera laranja nabarmendutakoa. Hemend ituzu aukera batzuk:

- noiz behinka - sekula ez - maiz -askotan -beti - tarte-
marteka

Eskerrak suziriak **noizean behin** bakarrik botatzen dituzten!

Eskerrak suziriak..... bakarrik botatzen dituzten!

Eskerrak suziriak..... bakarrik botatzen dituzten!

3. Erlazionatu esanahi berdina dituzten hitzak.

Lehertu	txapligua, etxaflero, bolandera
Eskubarrenak	eztanda egin
Tximistotsean	arineketan, korrika
Suziria	esku barruak, esku azpialdeak